



ADIERAZPEN INSTITUZIONALA, EMAKUMEEN AURKAKO INDARKERIA DESAGERRARAZTEKO NAZIOARTEKO EGUNA

2023KO AZAROAK 25

Gobernu Kontseiluak, 2023ko azaroaren 21ean egindako ohiko bilkuran, honako adierazpen instituzional hau onetsi du azaroaren 25eko Emakumeen aurkako Indarkeria Desagerrarazteko Nazioarteko Eguna dela eta:

Azaroaren 25a dela-eta (Emakumeen aurkako Indarkeria Desagerrarazteko Nazioarteko Eguna), Arabako Foru Aldundiak uste du beharrezkoa dela arreta jartzea sexu indarkeriak adingabeen artean duen intzidentzia gero eta handiagoan; izan ere, indarkeria mota hori indarkeria ikusiezinenetako eta normalizatuenetako bat bihurtu da, eta urtez urte gora egiten jarraitzen du.

Hainbat txostenen arabera, sexu delituen biktimen % 40 adingabeak dira, gehienak neskatok eta nerabeak. Adingabeek sexu askatasunaren aurka egindako delituen ehunekoak ere gora egin du. Laguntza espezializatuaren eskaerek gora egin badute ere, datuek erakusten dute neskek zailtasun handiak dituztela beren portaeran indarkeria adierazpen jakin batzuk hautemateko, bai berdinen taldean, bai harreman afektiboetan.

Era berean, ohartarazi da adingabeen artean genero mitoak eta estereotipoak zabaltzen ari direla, bai eta haurren sexualizazioa eta sexu hastapen goiztiarra ere, pornografiaren bidez, gehienbat, ohiko erabilerako sare sozialetan. Kasu askotan, gainera, biktimek ez dute sinesgarritasunik, eta horrek eragotzi egiten du garaiz esku hartzea edo esku hartze konpontzailea egitea adingabeen aurkako sexu abusu eta eraso kasuetan.

DECLARACIÓN INSTITUCIONAL EN EL DÍA INTERNACIONAL PARA LA ELIMINACIÓN DE LA VIOLENCIA CONTRA LAS MUJERES

25 DE NOVIEMBRE DE 2023

El Consejo de Gobierno, reunido en sesión ordinaria celebrada el 21 de noviembre de 2023, ha aprobado la siguiente declaración institucional con motivo del 25 de noviembre, Día Internacional para la Eliminación de la Violencia contra las Mujeres:

Con motivo del 25 de noviembre, Día Internacional para la Eliminación de la Violencia contra las Mujeres, la Diputación Foral de Álava cree necesario poner la atención en la creciente incidencia de la violencia sexual entre las y los menores como una de las formas de violencia que resulta más invisibilizada y normalizada, y que sigue aumentando de año en año.

Según diferentes informes, hasta un 40% de las víctimas de delitos sexuales son personas menores de edad, mayoritariamente niñas y adolescentes. Aumenta también el porcentaje de delitos contra la libertad sexual cometidos por menores de edad. Si bien han aumentado las peticiones de ayuda especializada, los datos reflejan que las chicas presentan serias dificultades para detectar ciertas manifestaciones de violencia en su propio comportamiento, tanto en el grupo de iguales como en sus relaciones afectivas.

Asimismo, se alerta sobre la difusión entre las y los menores de mitos y estereotipos de género, así como la sexualización infantil y la iniciación sexual temprana a través de la pornografía, en mayor grado, en las redes sociales de uso habitual. En muchos casos, se detecta además la falta de credibilidad de las víctimas, lo que impide la intervención precoz y reparadora en los casos de abusos y agresiones sexuales a menores.





Horren guztiaren ondorioz, harreman afektibo sexualen eta gizonek eta emakumeek harreman horietan duten rolaen imaginario desitxuratua zabaldu da. Sexu indarkeriaren erabilera hutsaltzen eta legitimatzen da, emakumeak, haien nahiak eta gorputzak menderatzeko modu gisa. Jokabide larriek sexu erasoak eta eraso fisikoak eragin ditzakete, bai eta, muturrekoenetan, emakumeen hilketak ere.

Egoera horren aurrean, erakunde maila guztiek lankidetzan jardun behar dugu, eta ahal diren estrategia eta mekanismo guztiak sustatu behar ditugu, emakumeek eta neskek bizi garapen betea izan dezaten, askatasun, berdintasun eta segurtasun baldintzetan. Eta, zehazki, beren desioak, txerak eta sexu portaerak bortxarrik eta indarkeriarik gabe adieraz ditzaten, genero estereotipoak eta aginduak alde batera utzita. Bizikidetzaren berdintasunezkoa eta indarkeriarik gabekoa izateko baldintzak bultzatzen lagundu behar dugu.

Foru Gobernuak berretsi egiten du benetako berdintasuna eta berdintasun eraginkorra bermatuko duen berdintasunezko gizarte arabarra lortzeko konpromisoa. Horregatik, gizartearen berdintasunaz eta emakumeenganako indarkeriaren aurka egiteaz kontzientziatzeko ekintzak garatuko ditu, baita haurtzaroen eta nerabezaroen sexu indarkeriak prebenitzeko ekintzak ere.

Horretarako, dauden programak indartuko ditu eta haur eta nerabeentzako ekintza berriak bultzatuko ditu, besteak beste, afektibitatea, harreman ereduak, maskulinitate ereduak eta rol sexistak gaitzetzeko estrategiak eta parekotasuna lantzeko.

Era berean, beste erakunde batzuekin elkarlanean arituko da indarkeria digitala prebenitzeko eta hari erantzuteko estrategiak lantzen, indarkeria matxistaren modu berri horri aurre eginez, eta adingabeen hezkuntza prozesuak indartuko ditu BELDUR BARIK programaren bidez.

Como resultado de todo ello, se ha extendido un imaginario distorsionado de relaciones afectivo-sexuales y del rol de hombres y mujeres en las mismas. Se banaliza y legitima el ejercicio de la violencia sexual como forma de dominación sobre las mujeres, sus deseos y sus cuerpos. Los comportamientos más graves pueden derivar hacia las agresiones sexuales y físicas e incluso, en sus formas más extremas, en los asesinatos de mujeres.

Ante esta situación, los diversos niveles institucionales hemos de colaborar y promover todas las estrategias y mecanismos posibles para que las mujeres y las niñas tengan un desarrollo vital pleno, en condiciones de libertad, igualdad y seguridad. Y, en concreto, para que puedan expresar sus deseos, afectos y comportamientos sexuales sin coacciones y violencias, al margen de los estereotipos y mandatos de género. Debemos contribuir a favorecer las condiciones para una convivencia igualitaria y libre de violencias.

El Gobierno foral se reafirma en su compromiso con la consecución de una sociedad alavesa igualitaria que garantice la igualdad real y efectiva. Por ello, desarrollará acciones de concienciación de la sociedad en igualdad y contra la violencia hacia las mujeres, así como para la prevención de las violencias sexuales en la infancia y la adolescencia.

Para ello, reforzará los programas existentes e impulsará nuevas acciones dirigidas a la infancia y la adolescencia para trabajar, entre otros, la afectividad, los modelos relacionales, los modelos de masculinidad y las estrategias de superación de roles sexistas y la paridad.

Asimismo, colaborará con otras entidades en la elaboración de estrategias de prevención y respuesta a la violencia digital, combatiendo esta nueva forma de violencia machista y reforzará los procesos educativos con menores a través del programa BELDUR BARIK.



Azkenik, herritarrei dei egiten die azaroaren 25ean urrats bat aurrera egiteko eta Emakumeen aurkako Indarkeria Desagerrarazteko Nazioarteko Eguna dela-eta Arabako Lurralde Historikoan deitutako mobilizazioekin bat egin dezaten.

Gasteiz, 2023ko azaroak 21.

Finalmente, realiza un llamamiento a la ciudadanía para que el 25 de noviembre dé un paso al frente y se una a las diversas movilizaciones convocadas en el Territorio Histórico de Álava con motivo del Día Internacional para la Eliminación de la Violencia contra las Mujeres.

Vitoria-Gasteiz, a 21 de noviembre de 2023.